

Agustin Arrieta Urtizberek atzo aurkeztu zuen Donostian bere nobela berria. ANDONI CANELLADA / FOKU

Gazteen gogoetak ilargi argitan

'Gaueko eztabaidak' nobela kaleratu du Agustin Arrieta Urtizberek • Sakonak bezain egunerokoak diren gaien inguruko gogoeta filosofikoak ditu oinarri, eztabaida formatuan

Aitor Biain

Lau lagun, ilargiaren argitan, gaurkoak bezain betikoak diren auziez eta gaiez gogoetatzen. Abiapuntu hori du Agustin Arrieta

Urtizberearen *Gaueko eztabaidak* filosofia liburuak. Kongresu batera joan diren lau gazte dira protagonistak: Unai, Josu, Ane eta Miren. Baina izan zitezkeen EHU'n filosofia ikasten ari diren beste lau gazte ere. Izan ere, elkar ezagutu berri duten eta mundu bat galdera eta kezka duten lau gazteren lekuan jarri da idazlea, eztabaida batek izan ditzakeen ertz eta aurpegi guztiak solasaldi bakarrean josteko. Erein argitaletxearekin eman du argitara nobela berria.

Filosofia irakaslea da Arrieta Urtizberea Euskal Herriko Unibertsitatean, eta aurrez ere argitaratu ditu gaiaren inguruko lanak: fikziozko bi ipuin liburu eta hainbat saiakera, beste askoren artean. Inazio Mujika Erein argitaletxeko editoreak azaldu duenez, ordea, *Gaueko eztabaidak* liburua berezitasunik aipagarriena idazketa estiloa da, kontakizuna eztabaida gisara jaso baitu idazleak.

Idazlearen hitzetan, formatu «klasikoa» da eztabaidarena filosofian; aurrez, beste idazle ba-

tzuk ere sarritan erabili izan dute. «Badago halako tradizio bat. Platonen obra da aipagarriena agian, baina badira gehiago ere: Cicero, Galileo...». Arrieta aitortu du, ordea, David Humeren *Erlitio naturalari buruzko solasaldiak* lana hartu duela oinarri liburu idazterakoan. Hau da, gazteen hitzartzeak «modu orekatuan» tartekatzen dira testuan, soseguz eta errespetuz egindako eztabaida baten adierazgarri gisara.

«Elkarrizketa oso argumentatiboak dira», esan du Arrieta. «Auziak jartzen dira mahaiaren gainean, eta aldeko eta kontrako argudioak txandakatzen dira». Baina ez hori bakarrik; «oso enpatikoak» ere badira, «pertsonaiek entzuten dakitelako». «Saiatzen dira ulertzen bestearen ikuspegia, eta orduan hasten da argudioen bidezko borroka».

Arrieta aitortu du formatuak zenbait buruhauste eragin dizkiola, halere: erritmoa da horietako bat; izan ere, oso bestelakoa da lana lehenengoz idatzi zuenarekin alderatuta. Elkarrizketarik apenas zuen testu hark, eta iritzi

ezberdinak jasotzen bazituen ere, modu gordinen plazaratzen ziren. «Oraingoan badago iritziak partekatze ahalegin bat. Hobe-kuntza bat egon da alde horretatik», azpimarratu du.

Irati Zubia Landak ere hartu du parte aurkezpenean; Arrieta ikasle izandakoa da, eta filosofian doktoregaia da gaur egun. Haren hitzetan, antzezlan baten gidoiaren itxura du lanak ia-ia. «Ematen du aukera eszena irudikatze eta pertsonaiek gorpuzteko». Elkarrizketen egiazkotasuna nabarmendu du Zubiak, batez ere. «Ez dira horren artifizialak; gertatzen dira elkarrizketetan ohikoak diren dinamika: eztabaida pertsonalizatzea, adibidez».

Estereotipoetatik aldenduz

Pertsonaiekin izan du bigarren «arazoa» Arrieta. «Oso prototipoak ziren hasieran, estereotipuegiak. Azkeneko bertsioan, ordea, badago aldatzeko joera bat, edo bestearekin iritziak partekatze ahalegin bat». Idazleak lau errepiderek alderatu ditu protagonistak: batzuetan modu

paraleloan dabilta; bestetan, gurtzatu egiten tira; eta, tarteka, oso tarteka, bat egiten dute. Baina askotariko gaien inguruan hausnartu eta beraien ikuspuntua azalduko dute laurak.



Gustatuko litzaidake irakurle orok ariketa bat egitea, eta bere ikuspuntua azaltzea liburu irakurtzean»

Agustin Arrieta Urtizberea
Idazlea eta filosofia irakaslea

Hain zuzen, hiru gauetan izandako eztabaidak jasotzen ditu kontakizunak. Aurrenekoan, zientziaz, erlijioaz eta egiaz gogoetatuko dute gazteek; bigarren goan, arteaz, generoaz, maitasunaz eta balioez; eta, hirugarrenean, zoriontasunaz, besteak beste. Unibertsitatean, bere ikasleen artean eztabaida pizten zuten gaiak dira oro har, sakonak bezain egunerokoak. Eta ez zaio arrotza egin idazleari bakoitzaren aldeko nahiz kontrako argudioak fikzionatzea. «Ariketa hori sarritan egin dut klasean. Entzun ditut ahots asko, eta askotan ez naiz ados egon haiekin. Baina kontuan izan ditut, eta saiatu naiz haiek konbentzitzen ere. Uste dut hori dela ahalegin hori egiteko izan dudana oinarria».


Ikasleei begira

Arrieta ez du terminologia teknikorik erabili liburuan; aitzitik, edonork edonoz izan ditzakeen elkarrizketak jaso ditu kontakizunean. Filosofia gizarteari hurbiltzeko saiakera bat da liburu finen, eta, beraz, irakurle orori zuzenduta dago. «Autoreak apustu bat egiten du filosofia egiteko eta erakusteko modu baten alde. Eta hori ikusten da edukian eta kontaktzeko moduan», azpimarratu du Zubiak.

Idazleak aitortu du, hala ere, gazteak izan dituela gomutan liburu idazterakoan: DBHko eta unibertsitateko ikasleak, zehazki. Eta nahiko luke liburu hezkuntzaren esparrura iristea ere. Izan ere, uste du liburu «tresna interesgarria» izan daitekeela haien zat, «arrazoitzeko, argudiatzeko, argudioak aztertzeko, entzuten jakiteko...». Liburuaren azkeneko helburua irakurleak eztabaidan parte hartzea baita, Arrieta nabarmendu duenez: «Gustatuko litzaidake irakurle orok ariketa bat egitea, eta bere ikuspuntua azaltzea liburu irakurtzean».

SAN TELMO MUSEOA

Asteartetik Igandera: 10:00-20:00
www.santelmomuseoa.eus



• Museo Bikoitza: Bideo instalazioa

MAGIA, MATERIA ETA BEHARRA
JOSE MARI ZABALA

"Gipuzkoako lurralde eta denboraren hurbiletan ekoizpen materialaren munduari begiratzeko aukera bat, ekimen ekintzailen batzuk (...) bereziki azpimarratuz"

STM

San Telmo Museoa